

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 36/2021 Foru dekretua, uztailaren 27koa. Onestea Kontseiluaren azaroaren 17ko 36/2020 Foru Dekretuaren bidez onartutako mahastizaintzako ustiategiatarako eta sagardogileentzako laguntzen aldi baterako araubidearen oinarri arautzaileen aldaketa, eta haien 2021erako deialdia**

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 17ko 36/2020 Foru Dekretuaren bidez, onetsi ziren Arabako Lurralde Historikoko mahastizaintza ustiategiatarako eta sagardogileentzako laguntzen aldi baterako araubidearen oinarri arautzaileak, bai eta laguntza horien 2020rako deialdia ere.

2021ean zehar, 2020ko egoerak jarraitu egin du. Hala, hainbat arau etorri dira, ondoko honen esparruan kokatuak: 44/2020 Errege Dekretua, abenduaren 10ekoa, alarma egoeraren deklarazioaren eremuko prebentzio neurri espezifikoak batzeko eta eguneratzeko neurriena. Dekretu hori 2021eko urtarrilean aldatu zen, eta hil horren 23an argitara eman zen urtarrilaren 22ko 4/2021 Dekretua. Horietan, eutsi egin zitzaion, funtsean, aurreko dekretuetako xedapen guztiei.

Gaur egun, pandemia egoera oraindik ez da gainditu eta, alarma egoera kendu bada ere, nahitaez bete beharrekoak dira oraindik Lehendakariaren maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretuan jasotako prebentzio neurri asko (dekretu hori aldatua izan da SARS-CoV 2k sortutako infekzioen hedapena geldiarazteko neurriei buruzko maiatzaren 31ko 26/2021 Dekretuaren bidez).

Lehenago eta oraingo egoera horiek eragin handia izan dute eta oraindik ere eragin handia dute nekazaritza sektorean, eta ondorio ekonomiko nabarmenak izan dituzte zenbait azpisektoretan, mahastizaintza eta sagardogintza sektoreak direlarik kalte handiena jaso dutenetakoak aipatutako neurri horiek ostalaritzan, jatetxeetan eta turismoan – bereziki enologikoan – ekarri dituzten eta oraindik irauten duten garrantzizko murrizketengatik. Hartutako neurriek eta merkataritza kanalak mugatzeak eta are ixteak ere ardo eta sagardo salmentaren beherakada nabarmena ekarri dute, merkatuak distortsionatu eta azken kanpainako prezioei eragin baitiete, eta segituko dute ondorio garrantzitsuak izaten aurtengoan ere.

Era berean, mahastizaintza ustiategiei osasun agintariak onetsitako neurriak hartu behar izan dituzte beren lan arriskuen prebentzio planetan, beren emaitza ekonomikoei buruzko ziurgabetasun handiaren erdian. Hori bereziki arazo da udaberriko kimaketa eta kimu berriak kentzeko kanpainetan, bai eta mahats biltzea garaian ere; izan ere, ustiategiei kostu handiak ordaindu behar dituzte osasun neurriak betetzeko, bai beraientzat, bai sasoikako langileentzat, zeinak kopuru eta garrantzi handikoak baitira Arabako mahastizaintza eremuetan. Horrez gain, era, ekintza bereziak egin behar izan dira bizitoki komunitarioetan eta garraioetan, osasun arauak betetzera egokitzeko, lan osasuna bermatzeko helburuz.

Horregatik guztiagatik, ustiategiaren emaitza ekonomikoek eragin handia jasaten dute oraindik, batetik, mahatsa erosten duten upeltegiaren eskariak behera egin duelako eta horrek mahatsaren prezioa jaitsi duelako, eta, bestetik, araudiak ezarritako laneko segurtasun neurrietara egokitzearen ondorioz ekoizpen kostuak handitu direlako.

Egoera hori ikusirik, Arabako Foru Aldundiak erabaki du neurriak ezartzen jarraitzea luzatzen ari den egoera hori arintzeko, Arabako mahastizaintza eta sagardogintza sektoreetarako 2020an ezarri zen laguntza lerroa 2021eko kanpaina honetan mantenduz.

Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1408/2013 EE Araudian xedatutako minimis araubideari lotutakoak dira laguntza horiek. Esandako araubideak xedatzen duenez, onuradun berak, gehienez ere, 20.000,00 euroko zenbatekoa jaso ahal izango du 3 urteko epean.

Kontuan harturik laguntza lerro hori ez dagoela jasota Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsitako Dirulaguntza Plan Estrategikoan (otsailaren 2ko 40/2021 Erabakiaren bidez aldatuta), bidezkoa da hura aldatzea.

Bete dira xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan ezarritako izapide guztiak.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 17ko 36/2020 Foru Dekretuaren 2. artikuluan, zeinean onuradunak arautzen baitira, 2.1.1 apartatua aldatu eta honela uztea:

“Gutxienez 6 hektarea-ko eta gehienez 55 hektarea-ko mahasti azalera edukitzea Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroan inskribatuta Arabako Errioxako nekazaritza ustiategi-gietan, dekretu hau argitaratzen den egunean, eta gutxienez 3 ha-ko mahasti azalera edukitzea Arabako Txakolina jatorri deituraren eremuko ustiategi kasuan. Sagardoa egiten dutenek Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroan inskribatuta egon beharko dute, jarduera horretan.”

Bigarrena. Gobernu Kontseiluaren azaroaren 17ko 36/2020 Foru Dekretuaren 3. artikulua, Arabako Errioxarako laguntzen era eta zenbatekoa arautzen dituena, aldatu eta honela uztea:

#### **3. artikulua. Laguntzen era eta zenbatekoa**

##### 3.1. Arabako Errioxako ustiategiak:

- Ustiategiko lehenengo 15 hektareek 120,00 euro jasoko dute hektarea-ko.
- 15 hektarea-tik 25 hektarea-ra bitarteko azalerak 90,00 euro jasoko du hektarea-ko.
- 25 hektarea-tik 40 hektarea-ra bitarteko azalerarako, zenbatekoa 60,00 euro izango da hektarea-ko.
- 40 hektarea-tik 55 hektarea-ra bitarteko azalerarako, zenbatekoa 30,00 euro izango da hektarea-ko.

##### 3.2. Arabako Txakolina/Txakoli de Alava jatorri-deituraren eremuan dauden ustiategiak:

Ustiategiko lehenengo 5 hektareek 200,00 euro jasoko dute hektarea-ko.

5 hektarea-tik 20 hektarea-ra bitarteko azalerak 150,00 euro jasoko du hektarea-ko.

##### 3.3 Laguntza eskatu duen sagardogile bakoitzak 2.000,00 euroko zenbateko finkoa jasoko du.

Hirugarrena. Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 17ko 36/2020 Foru Dekretuaren 4. artikuluko 4.2 apartatua aldatzea, zeinak laguntza eman eta ordaintzeko prozedura arautzen baitu, eta honela idatzita geratuko da:

“Aurreko artikuluan aipatutako azaleraren arabera laguntza emango da eskaera aurkeztu ondoren, Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroan inskribatutako mahastizaintza azaleran oinarrituta. Sagardogileei laguntzak eman aurretik Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroan inskribatuta dauden egiaztatuko da”

Laugarrena. Onestea Arabako Lurralde Historikoko mahastizaintza ustiategietarako eta sagardogileentzako aldi baterako laguntzaren deialdia 2021erako, ondoko xehetasun hauen arabera:

Eskaerak aurkezteko epea: 15 egun baliodun, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaerak leku hauetan aurkeztu behar dira:

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.

Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroetan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako batean.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak bere 14.2 artikuluan ezarritakoa betez, betiere telematikoki aurkeztu behar dute, egoitza elektronikoen bidez (<https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>), pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaez elkargoko kide izatea eskatzen duen jarduera profesional batean ari direnek (jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako) eta administrazioarekiko harremanak nahitaez elektronikoki izan behar dituen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

Kreditu erreserba: 1.000.000,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastu aurrekontuko 40.1.00.47.00.479.00.03 "A Plana – Nekazaritza Sektoreari Laguntzeko Neurriak" partidaren kontura. Diru kopuru hori une egokian xedatu eta ordainduko da, laguntzaren arautan jasotako baldintzak betetzen dituzten laguntza eskaeren alde.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidaren edozein zioreratik gertatutako kreditu gehikuntzari ere.

Bostgarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsitako Dirulaguntza Plan Estrategikoaren eranskina (otsailaren 2ko 40/2021 Erabakiaren bidez aldatua), eta haren barruan sartzea xedapen honen eranskinean ageri den edukia.

Seigarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea laguntza deialdi hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapen bakarra

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 27a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foro diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**